


EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2011KO ABUZTUA

Euskal AEko industri jarduera %1,9 hazi da 2011ko abuztuan

Aurreko hilabetearekin, 2011ko uztailarekin, alderatuta Euskal AEko industri produkzioa %0,6 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa %1,9 hazi da 2011ko abuztuan, 2010eko hilabete berarekin alderatuta betiere. Aurreko hilabetearen, hau da, 2011ko uztailaren aldean Euskal AEko industri produkzioa %0,6 jaitsi da, baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2011ko abuztuko indizearen eta 2010eko abuztuko indizearen bilakaeren artean aldeak eman dira sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak %14,0 igo dira, tarteko ondasunak %2,8 hazi dira eta kontsumo-ondasun guztiak %0,1 jaitsi dira, batez ere kontsumo-ondasun iraunkorrek behera egin dutelako (%3,5) nahiz eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %0,4 igo. Energiak %11,0 egin du behera.

2011ko abuztuko hilabete arteko aldakuntzak (2011ko uztailaren aldean) ikur ezberdina izan du industriako sektore nagusietan. ekipamenduko ondasunak %2,8 igo dira baina tarteko ondasunak %4,7 jaitsi dira eta energia %1,2 jaitsi da. Kontsumo-ondasun guztiek %1,3 egin dute behera, kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,4 igo arren kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %1,7 egin dutelako behera.

2011ko abuztuan (aurreko urteko hilabete beraren aldean) hazkunderik handienak izan dituzten sektore nagusiak *garraio materiala* eta *makineria eta ekipoa* izan dira, %41,2 eta %11,5eko tasekin hurrenez hurren.

**1. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea
 Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
 sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,0
09 - Kautxua eta plastikoak	3,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-8,5
13 - Makineria eta tresneria	11,5
14 - Garraio-materiala	41,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	0,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-10,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-0,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea

Bestalde, *elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* eta *energia elektrikoa, gasa eta lurrina* sektoreek urte batetik bestera % 10,5 eta % 8,5 egin dute behera, hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, Industri Produkzioaren Indizearen urte batetik besterako abuztuko bilakaerak ikur positiboa izan du Araban (% 16,1eko igoera), baina Bizkaian eta Gipuzkoan beherapenak eman dira, % 0,1 eta % 2,2 hurrenez hurren. Hilabete batetik besterako hazkunde-tasa, 2011ko uztaileko datuekin alderatuta, positiboa izan da Araban, %8,5 igo baita; baina Bizkaian eta Gipuzkoan % 2,0 eta % 4,1 egin dute behera hurrenez hurren.

2. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 abuztua (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2011abu/2010abu	M(2011abu)/M(2010abu)*	2011abu/2011uzt	2011uzt/2011eka
Indize orokorra				
Euskal AE	1,9	3,6	-0,6	1,4
Araba / Álava	16,1	7,0	8,5	-0,9
Bizkaia	-0,1	1,7	-2,0	1,9
Gipuzkoa	-2,2	3,8	-4,1	2,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,1	-1,1	-1,3	-0,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,5	-8,3	0,4	0,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,4	1,0	-1,7	-1,3
Ekipo-ondasunak	14,0	4,5	2,8	0,9
Bitarteko ondasunak	2,8	6,4	-4,7	3,0
Energia	-11,0	-3,7	-1,2	0,3

(*) t urteko urtarrietik 2011ko oraingo hilera arte metatutako aldiko urte arteko tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://EuskalEstadistikaErakundea/InstitutoVascodeEstadística)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)
[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)